

**UPV/EHUko GOI MAILAKO ETA  
ERRENDIMENDU HANDIKO  
UNIBERTSITATE KIROLARIENTZAKO  
I. TUTORETZA PLANA**

## AURKIBIDEA

1. AURKEZPENA	3
2. TUTORETZA PLANAREN HARTZAILEAK	4
3. TUTORETZA PLANAREN HELBURUAK	5
4. JARDUERA PLANAREN GARAPENA: METODOLOGIA	6
4.1. BABES AKADEMIKORAKO NEURRIAK	6
4.2. JARDUERA PLANAREN FASEAK	7
4.3. GIZA BALIABIDEAK. ERANTZUKIZUNAK	10
4.4. FLUXU DIAGRAMA. PROZEDURA	13
5. TUTORETZA PLANAREN EBALUAZIOA	14
I. ERANSKINA: UPV/EHUko goi mailako eta errendimendu handiko kirolarien identifikazio fitxa	16
II. ERANSKINA: Tutoretza planean parte hartu nahi duen ikaslearen konpromiso fitxa	17

## 1. AURKEZPENA

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak 2001eko azaroaren 22ko Gobernu Kontseiluan "UPV/EHUko goi mailako unibertsitate kirolariei laguntzeko proiektua" onartu zuen. Proiektu horren helburua zen gure unibertsitateko errendimendu handiko kirolariei orduan indarrean zegoen legediaren arabera (Kirolaren Legea, 10/1990) aplikagarri zitzaizkien neurriak arautzea eta kirolari horien zerrendak ikasturteka egiteko irizpideak zehaztea, beren kirol karrera eta karrera akademikoa arrakastaz uztartze aldera.

Ordutik hona, errendimendu handiko kirola eta hark unibertsitate mailan duen eragina arautzen duten legeetan zenbait aldaketa garrantzitsu egon dira. Aldaketa horiek, ikasleei unibertsitateko ikasketak eta kirol jarduera uztartzeko erak bermatzeko premiarekin batera, "Goi mailako eta errendimendu handiko unibertsitate kirolarientzako tutoretza plan" hau aurkeztera bultzatu dute UPV/EHU. Plan honetan aipatutako kirolarien izaera definitzen da eta unibertsitateak gure ikasleen errendimendu akademikoa eta kirol errendimendua ahalik eta onena izateko eskaini behar dituen babes neurriak jasotzen dira.

Betebehar horiek arautzen dituzten arauak honako hauek dira:

- **971/2007 Errege Dekretua**, uztailaren 13koa, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioarena, goi mailako eta errendimendu altuko kirolariei buruzkoa. (2007/07/25eko EBO)

Besteak beste, goi mailako kirolarien eta errendimendu handiko kirolarien definizioa, goi mailako kirolaria izateko eta egoera hori egiaztatzeko baldintzak eta prestakuntza eta hezkuntza bultzatzeko eta hezkuntza sistemako prestakuntza eskaintzetarako sarbidea errazteko neurriak jasotzen dituen estatu mailako araua.

- **203/2010 Dekretua**, uztailaren 20koa, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailarena, Goi Mailako Kirolari buruzkoa. (2010/08/20ko EHAA)

Erkidego mailako araua, goi mailako kirola eta kirolariak definitzeaz gain, kontuan hartu beharreko beste kirol figura batzuk jasotzen dituena: kirol epaileak eta teknikariak. Halaber, aipatutako talde horietan egoteko bete beharreko baldintzak zeintzuk diren eta goi mailako kirola babesteko eta sustatzeko zein neurri dauden jasotzen du, beteak beste.

- **UPV/EHUko Ikasleen Arautegia**, UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak 2012ko ekainaren 21eko bileran onartutakoa (2012/07/31ko EHAA).

Arautegi honen 6. artikuluan goi mailako kirolari, teknikari eta epaile gisa edo errendimendu handiko kirolari gisa egiaztatutako UPV/EHUko ikasleen eskubideak arautzen dira.

## 2. TUTORETZA PLANAREN HARTZAILEAK

Unibertsitateko goi mailako kiroltzat hartzen da honako arrazoi hauengatik Euskal Herriko Unibertsitaterako interesgarria den kirol jarduera oro: unibertsitate kirola garatzeko funtsezko faktorea izateagatik; prestakuntzarako beharrezko diren baldintza tekniko eta zientifikoak direla eta, unibertsitateko gainerako kideen artean kirola bultzatzeko bidea izateagatik; eta UPV/EHUren izena zabaltzeagatik unibertsitate kiroleko zein unibertsitateaz kanpoko kiroleko proba eta lehiaketetan, erkidegoen artekoak izan, estatu mailakoak izan zein nazioartekoak izan.

Horrela, bada, Tutoretza Plan hau honako baldintza hauek betetzen dituzten UPV/EHUko ikasleei aplikatuko zaie:

- Goi mailako eta errendimendu handiko kirolariak direnei, uztailaren 13ko 2007/971 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera.
- Goi mailako kirolariak direnei, uztailaren 20ko 203/2010 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera.
- ADO Planeko eta ADOP Planeko kirolariak.
- Aurten edo iaz unibertsitate arteko Espainiako txapelketetan, banakako zein taldekako kirolean urrezko, zilarrezko edo brontzezko domina lortu duten kirolariak, oraindik kirol horretan arituz gero.
- Aurten zein iaz Kirol Kontseilu Gorenak aitortutako unibertsitate kiroleko nazioarteko jardueretan parte hartu duten ikasleak, oraindik kirol horretan arituz gero. Jarduera horiek dira, besteak beste: FISUK antolatutakoak (neguko eta udako Unibertsidadak eta munduko txapelketak) eta EUSAK antolatutakoak (unibertsitateko Europako txapelketak).
- Indarrean dagoen kirolari kontratu profesionala duten UPV/EHUko ikasleak (lan bizitzako ziurtagiri bidez egiaztatu beharko da).

### 3. TUTORETZA PLANAREN HELBURUAK

Plan honen helburu orokorra da UPV/EHUko goi mailako kirolariei (aurreko atalean ezarritako baldintzak betetzen dituzten ikasleei) laguntzea, unibertsitateko ikasketak eta kirol jarduera (entrenamenduetan, kontzentrazioetan, txapelketetan eta emaitza positiboak lortzeko beharrezkoak diren bestelako jardueretan oinarritutakoa) uztartzeko aukera izan dezaten.

Zehazkiago esanda, plan honek honako hauek lortu nahi ditu:

- Planaren nondik norakoak, ezaugarriak eta onurak helaraztea aipatutako ikasleei.
- Planean sartutako ikasle bakoitzari bere karrera akademikoan eta kirol karreran lagunduko dion tutore bat jartzea.
- Eskakizun akademikoak eta kirolari dagozkionak ahalik eta baldintzarik onenetan bateragarri egiteko beharrezkoak diren berrantolaketa akademikoak egitea.
- Beharrezkoak diren gomendio akademikoak egitea irakasgaien sekuentziara hobeto egokitzeko, batez ere nahitaezkoak ez direnei erreparatuz.
- Ikasle horiek arlo akademikoan hobeto egokitu daitezela lortzea, egiten dituzten kirol jarduerak unibertsitateko bizitza garatzerakoan zailtasunak ekar diezazkieketelako.

## 4. JARDUERA PLANAREN GARAPENA: METODOLOGIA

### 4.1. Babes akademikorako neurriak

UPV/EHUn ikasten duten goi mailako kirolariek, teknikariek eta epaileek edo errendimendu handiko kirolariek jarduera akademikoa eta kirol jarduera uztartzen laguntzera bideratutako neurri hauei heldu ahalko diete.

Neurri hauek Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren 971/2007 Errege Dekretuan, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren 203/2010 Dekretuan eta UPV/EHUko Ikasleen Arautegian jasotakoari erantzuten diete.

- Txanda, ordutegia, taldeak edo tutoretzak aukeratzea edo aldatzea, entrenamendu orduak, lehiaketa ofizialetan parte hartzea eta ohiko bizilekutik kanpo kontzentrazioak izatea ikasketekin bateratu ahal direla bermatzeko.
- Lehiaketa ofizialetan parte hartzeagatik eskoletara ez joateko aukera izatea, nahitaezko eskola saioen %25era arte, dagokion kirol federazioaren ziurtagiri baten bidez justifikatuz gero.
- Azterketen eta nahitaezko praktiken egutegian malgutasuna izatea, horiek lehiaketa ofizialen datekin bat datozenean, betiere dagokion kirol federazioaren ziurtagiri bidez justifikatuz gero.
- Kirol ekintzetan parte hartzeagatik ikasturteko 3 kreditu aitortzea, UPV/EHUko Graduoko Ikasketetan Kredituak Transferitu eta Onartzeko Arautegiaren arabera.
- Ikastegian tutore akademikoa bat esleitzea. Pertsona horrek laguntza akademikoa emango du eta, horrez gain, planean sartutako ikaslearen eta unibertsitateko estamentu desberdinen arteko bitartekari lanak egingo ditu.
- Goi mailako eta errendimendu handiko kirolariei hezkuntzaren arloan laguntzeko beste arau batzuetan jasotzen diren beste neurri batzuk.

## 4.2. Jarduera planaren faseak

### 4.2.1. Lan Batzordea

Tutoretza plan hau egiteko batzorde bat eratu da, honako hauek osatua: Ikasleen Errektoreordetzako eta Kirol Zerbitzuko langileak, zuzendaritza taldeetako arduradunak, goi mailako kirolari gehien matrikulatuta dituzten zenbait ikastegitako irakasleak eta goi mailako/errendimendu handiko bi ikaslek.

#### Batzordeko kideak:

- Elena Bernaras. *UPV/EHUko Ikasleen errektoreordea*
- Fernando Etxegarai. *Ikasleentzako Argibide Zerbitzuko (IAZ) koordinatzailea*
- Jose Luis González. *Kirol Zerbitzuaren arduraduna*
- Isaac Barrio. *Unibertsitateko Orientazio teknikaria (IAZ)*
- Maite Fuentes. *Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultateko dekanoa*
- Valentín Rocandio. *Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultateko dekanordea*
- Sonia García. *Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultateko dekanordea*
- Fátima Ruiz. *Medikuntza eta Odontologia Fakultateko irakaslea*
- Vicente Gascón. *Donostiako UE Politéknikoko irakaslea*
- Luispe Gutierrez. *Donostiako Irakasleen UEko irakaslea*
- Aintzane Encinas. *Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultateko ikaslea (profesionala)*
- Mikel Odriozola. *Donostiako Irakasleen UEko ikaslea (goi mailako kirolaria)*

Proposamen honekin Lan Batzordeak UPV/EHUko ikastegi guztientzat berdina izango den eredu bat eskaini nahi du, zabalik utzita unibertsitateko ikastegi bakoitzak bere premien eta errealitatearen arabera moldatzeko aukera.

### 4.2.2. Hedapena:

Fase honetan planaren nondik norakoak, ezaugarriak eta onurak helarazi nahi zaizkie goi mailako kirolariei. Bestalde, plana unibertsitate barruan ezagutarazi nahi da, ikastegietako zuzendaritza taldeei eta UPV/EHUko sailletako irakasleei zuzendutako ekintzak proposatuz.

Ikasleak kontuan hartuz gero, hiru dira esku hartzeko dauden momentuak:

- Unibertsitatean sartu baino lehen: tutoretza plana hedatzea UPV/EHUko IAZek antolatutako Unibertsitate Sartzeko Programako ekintzen bidez (topaketak Bigarren Hezkuntzako orientatzaileekin, unibertsitate orientazioko azokak eta ateak zabaltzeko egunak).
- Matrikula egiteko orduan: tutoretza planean parte hartzeak dituen onurei, eskubideei eta betebeharreri buruzko informazioa zuzenean ematea ikasleei, informazio hori ikasleen artean zabaltzea eta matrikula egiteko prozesuan aholkularitza eskaintzea.
- Ikasturtea hasten denean: plana hedatzea unibertsitateko ikastegi guztiek antolatzen dituzten ekintzen barruan.

UPV/EHU barruan, plana hedatzeko aukeretako bat izango da batez ere unibertsitateko ikastegietako arduradunei (zuzendaritza taldeei) zuzendutako jardunaldiak, topaketak, informazio saioak, bilerak eta abar antolatzea. Ekintza horien muina tutoretza plana aurkeztea izango da, eta horretarako, goi mailako kirolarien eskubideak arautzen dituzten arauetara buruzko informazioa emango da, baita arau horiek unibertsitateko ikasleentzat eta irakasleentzat dituen ondorioei buruzkoa ere.

Gainera, komenigarria litzateke ikastegi bakoitzak tutoretza planaren nondik norakoak bere langileei (irakasleak eta AZPkoak) ezagutarazteko behar diren baliabideak jartzea.

#### **4.2.3. Izena ematea:**

Tutoretza plan honetan jasotako laguntza neurriez baliatu ahal izateko, UPV/EHU n matr ikulatutako goi mailako kirolariek unibertsitateari eskaera bat egin beharko diote. Eskaera hori beren ikastegiko dekanuari/zuzendariari egin beharko diote eta hark, aurkeztutako dokumentazioaren arabera, hura onartzea edo ez onartzea erabakiko du.

Eskaera horretan ikaslearen datu pertsonalak (izen-abizenak, helbidea, NAN, posta elektronikoa eta harremanetarako telefonoa), datu akademikoak (ikastegia, titulazioa, ikasturtea) eta kirol datuak (zein kirol egiten duen, modalitatea, etab.) jasoko dira. - *ikus l. eranskina* -.

Eskaerarekin batera UPV/EHUko goi mailako kirolarientzako tutoretza planean sartu ahal izateko baldintzetakoren bat (EBO, EHAA, ADO, ADOP, dagokion kirol federazioaren egiaztagiria) betetzearen egiaztagiria aurkeztu beharko da, UPV/EHUko Kirol Zerbitzuak egindakoa.



#### **4.2.4. Tutoretza:**

Tutoretza fasea tutoretza plan honen helburu nagusia lortzeko oinarritzko elementua da. Fase honetan entrenamendu eta/edo lehiaketa ofizialen egutegiak direla eta ikasturtearen erritmo normalari jarraitu ezin dioten kirolariei irakaskuntza laguntza emateko oinarritzkoak diren tutoretzak antolatzen dira.

Fase hau garatzeko UPV/EHUko ikastegi guztiek ikastegiko irakasle bat jarriko dute ikasle kirolarien eskura, hark dokumentu honetan jasotako tutoretza lanak (irakasle tutorearenak) egin ditzan. Ikastegi bakoitzak erabakiko du lan horiek egiteko pertsona bakarra ala gehiago izendatzen dituen, programan parte hartzen duten ikasleen eta baliabide eta aukeren arabera.

Tutore bakoitzak bere ikastegiko kirolariekin adostuko du zenbat tutoretza saio egin, baita tutoretza horiek nolakoak izango diren ere (banakakoak eta/edo taldekoak), sortzen diren premiak asetzen joateko eta kirola eta ikasketak uztartzen laguntzeko.

Tutoretza planean parte hartu nahi duten ikasleek konpromiso dokumentu bat sinatu beharko dute, jasota gera dadin aurkeztu egingo dituztela aurkeztu beharrekoak huts egiteak justifikatzeko, kirol emaitzak egiaztatzeko, entrenamenduen eta lehiaketen egutegi ofizialaren berri emateko, etab.

#### **4.2.5. Ebaluazioa:**

Planaren garapenaren banakako jarraipena egitea (ikastegiz ikastegi, irakasle tutore bakoitzarekin eta kirolariz kirolari), bai eta eta plan osoaren azterketa ere, tutoretza plan honetan sartutako eragile guztien balorazioak, iritziak eta gogobetetze maila jaso ahalko dituen txosten bat egiteko.

### 4.3. Giza baliabideak. Erantzukizunak

UPV/EHUko goi mailako kirolarien tutoretza plana garatzeko, ikasleak ez ezik, esku hartze prozesuan zuzenean edo zeharka parte hartuko duten beste zenbait pertsonen laguntza eta lankidetzak behar dira; irakasle tutoreei, irakasgaietako irakasleei, ikastegiako zuzendaritza taldeei eta Kirol Zerbitzuari buruz ari gara.

#### 4.3.1. Goi mailako kirolariak

- Ikastegiko Dekanotzan/Zuzendaritzan plan honetan jasotako laguntza neurriak lortzeko eskaera egitea. Eskaera onartzeko baldintza izan daiteke ikasleak berarekin aurretiaz egingo den elkarrizketa baten parte hartzea. Elkarrizketa horren helburua da kirolaria dela egiaztatzea eta izan ditzakeen premiak zeintzuk diren ezagutzea.
- Ikastegiak esleitutako tutorearekin adostutako tutoretza saioetan parte hartzea.
- Ikastegiko tutoreari kirol egutegia aurkeztea, entrenamenduen, kontzentrazioen, lehiaketen eta abarren ordutegiak zehaztuta bertan. Ikasleak ezin badu lehen aipatutako egutegi zehatza aurkeztu, bere aurreikuspenekin ahalik eta neurririk handienez bat datorren behin-behineko kronograma egin beharko du. Ez da justifikaziotzat onartuko eskolen, azterketen edo nahitaezko praktiken egunak baino gutxienez hilabete lehenago egiten ez den abisurik.
- Irakasgaietako irakasleekin harremanetan jartzea, eskatu ditzakeen laguntza neurriak adosteko.
- Entrenamenduak, kontzentrazioak eta/edo lehiaketak izateagatik eskola saioetara joatea ezinezkoa izanez gero, agirien bidez justifikatzea, baita azterketak, nahitaezko praktikak eta abar aurreratu edo atzeratu behar izanez gero arrazoi berberengatik.

Ikasleak konpromiso orri bat sinatuko du ikastegiak esleituko dion tutorearekin egingo duen lehen bileran, jasota gera dadin erantzukizunak beteko dituela. - *ikus II. eranskina* -.

#### 4.3.2. Irakasle tutoreak

- Ikasleekin talde bilera bat egitea tutoretza planean jasotakoa lantzeko, kirolarien premiak aztertzeko, beren eskubideak eta betebeharrak ezagutzeko eta esku hartzeko prozedurari heltzeko.
- Ikastegiak antolatutako harrera saioetan parte hartzea, tutoretza planaren ideia nagusia ezagutzera ematea eta hedatzea, eta ikasle horiei ikastegiaren dinamikari buruzko orientazioa eskaintzea, bertan errazago integra daitezten.

- Ikasleak orientatzea matrikula egiterako orduan eta ibilbideak aukeratzeko orduan eta zenbat eskola ordu hartu erabakitzerakoan aholkuak ematea, eskola orduak eta kirol orduak alderatuz.
- Ikasleekin batera banakako edo taldeko tutoretza erregimen bat ezartzea, egon daitezkeen gorabehereri aurre egiteko.
- Irakasleei goi mailako kirolarien eskubideen eta betebeharren berri ematea eta beren irakasgaietan zenbat kirolari matrikulatu diren eta zein premia izan dezaketen jakinaraztea.
- Irakasleei tutoretza planean jasotako babes neurrien berri ematea, ikasketak, batetik, eta entrenamenduen ordutegiak, lehiaketa ofizialetan parte hartu beharra eta bizilekutik kanpora egindako kontzentrazioak, bestetik, uztartuko direla bermatzeko babes akademikoko neurrietan interesa jarrita (huts egiteak justifikatzea, azterketen egutegia eta tutoretza orduak jartzeko malgutasuna, nahitaezko praktiken egunak egokitzea, irakaskuntza orduen koordinazioa, lanak egitea, etab.).
- Egin diren jarduerak eta egon diren gorabeherak aztertzeko ebaluazio bilera bat antolatzea eta ikasleen jarraipena egitea, ikasle horien bilakaera akademikoa baloratzea eta hurrengo ikasturteko matrikulari begira orientazioa eta aholkularitza eskaintzea.
- Dekretuak babestutako ikasleen eta unibertsitateko administrazioaren arteko bitartekari lanak egitea.
- Ikastegiko dekanuari/zuzendariari honako hauek jasotzen dituen amaierako txosten bat aurkeztea: ikasturtean zehar izandako gorabeherak eta egindako jarduerak, programaren helburuen betetze maila, tutoretza planean parte hartu duten ikasleen kopurua eta prozesuaren balorazio orokorra.

#### **4.3.3. Irakasgaietako irakasleak**

- UPV/EHUK goi mailako kirolaritzat aitortutako kirolariei egungo legediak emandako eskubideak erabiltzeko aukera ematea, beren jarduera akademikoa kirol jarduerarekin bateratu ahal izan dezaten, tutoretza plan honek beraien eskura jartzen dituen neurriak baliatzen utzita.
- Behar diren egokitzapenak egitea unibertsitateko kirolariak irakasgaien tutoretza akademikoetara joan ahal izan daitezen, saioetan landutako dokumentazio bibliografikoa eskuratu ahal izan dezaten, azterketak egiteko eta horiek berrikusteko aukera izan dezaten, garaiz lanak aurkeztu ahal izan ditzaten eta nahitaezko praktikak beren lehiaketen egutegiaren arabera egin ahal izan ditzaten.

Egokitzapen horiek egiteko irakasleek Zuzendaritza Taldearen, irakasle tutoreen eta UPV/EHUKo Kirol Zerbitzuaren laguntza izango dute.


#### **4.3.4. Ikastegietako zuzendaritza taldeak**

- Ikastegiko irakasle bat izendatzea, tutoretza plan honetan adierazitako eginkizunak bete ditzan (irakasle tutorea). Beharrezkoa izanez gero, eta kontuan hartuta matrikula egin duten goi mailako kirolarien kopurua edo ikastegiaren baliabideak, irakasle bat baino gehiago izendatu ahal izango da aipatutako eginkizunak betetzeko.
- Tutoretza planaren berri emateko antolatuko diren jardunaldi, bilera, informazio saio eta abarretan parte hartzea, bai eta ekintza horien antolaketa lanetan ere ikastegian.
- Tutoretza planaren berri ematea matrikula egiteko fasean, ikasle berriei harrera egiteko jardunaldietan, 1. mailatik gorako ikasleek automatrikula egiteko fasean, eta ikastegiko langileak jakinaren gainean jartzea (irakasleak, administrazio eta zerbitzuetako langileak, Ikastegiko Batzarra, Ikasleen Kontseilua, eta abar).
- Tutoretza planean parte hartzeko interesa daukaten ikastegiko ikasleen eskaerak biltzea. Eskaerak aztertzea, irakasle tutorearekin batera eta Kirol Zerbitzuaren laguntzaz, eta zerrendak helaraztea bai irakasle tutoreari bai kasuan kasuko irakasgaiko irakasleari.
- Kirolariek txandaz aldatzeko eta ordutegiak eta taldeak aukeratzeko egin beharreko tramiteak erraztea, kirolari horiek aukera izan dezaten ikasketak eta entrenamenduen, lehiaketen eta kontzentrazioen ordutegiak uztartzeko.
- ECTS kredituak aitortzea ikasleei kirol ekintzetan parte hartzeagatik, UPV/EHUko Graduak Ikasketetan Kredituak Transferitu eta Onartzeko Arautegiaren arabera.

#### **4.3.5. UPV/EHUko Kirol Zerbitzua**

- Bigarren hezkuntzako ikastetxeetako orientatzaileei laguntza eta informazioa ematea, honako gai hauen inguruan izan ditzaketen zalantzak argitze aldera: goi mailako kirolariak, unibertsitatean sartzeko, eta UPV/EHUko ikasketen nondik norakoak.
- Goi mailako kirolari izan daitezkeen ikasleak antzematea UPV/EHUko matrikula egin baino lehenago. Akademia Antolakuntzako Errektoreordetzak egingo ditu goi mailako kirolari izateko baldintzak betetzen dituzten ikasleen zerrenda eguneratuak eta Kirol Zerbitzura bidaliko ditu. Kirol Zerbitzuak ikastegietako irakasle tutoreekin egiaztatuko ditu datu horiek.
- Ikastegietako irakasle tutoreen esanera egotea, eskaerak ebaluatzeko beharrezkoa izan dezaketen laguntza eskaintzeko eta, beharrezkoa izango balitz, ikaslea kirolaria dela akreditatzeko kasuan kasuko ikastegian.
- Tutoretza planaren funtzionamendu egokia koordinatu eta bermatzea; planaren ebaluazioa koordinatzea; eta planari buruzko amaierako txostena egitea, ikastegiek egindako txostenetan emandako informazioa laburbilduta

#### 4.4. Fluxu diagrama. Prozedura



**Legenda:** KE: kirol errendimendua / EHT: errendimendu handiko ikasleen tutoretza lanak  
 TP: tutoretza plana / EH: errendimendu handia

## 5. TUTORETZA PLANAREN EBALUAZIOA

UPV/EHUko Kirol Zerbitzuak txosten bat egingo du ikasturte bakoitzaren amaieran, honako hauek jasotzeko bertan: ikastegi bakoitzean ikasturtean zehar izandako gorabeherak eta egindako jarduerak, programaren helburuen betetze maila, tutoretza planean parte hartu duten ikasleen kopurua eta prozesuaren balorazio orokorra.

Era berean, ebaluaziorako adierazle hauei buruzko datuak jaso ahal izango dira txostenean:

- Goi mailako eta/edo errendimendu handiko kirolarien errendimendu tasa (*..... ikasturtean gainditutako kredituen kopurua / ..... ikasturteko matrikulako ohiko kredituen kopurua \* 100*)
- Goi mailako eta/edo errendimendu handiko kirolarien arrakasta tasa (*..... ikasturtean gainditutako kredituen kopurua / ..... ikasturtean aurkeztutako ohiko kredituen kopurua \* 100*)
- Goi mailako eta/edo errendimendu handiko kirolarien graduazio tasa (*T tituluan urte berean sartu zen ikasle taldeetik ikasketak aurreikusitako denboran amaitu dituzten ikasleen kopurua + 1 / T tituluan urte berean sartu zen taldeko ikasle guztien kopurua \* 100*)

Plan hau ebaluatu egingo da, bai eta, beharrezko ikusten bada, eguneratu ere, UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak onartu eta bi urteko epearen barruan.

---

UPV/EHU, 2012ko abenduaren 17a

## I. ERANSKINA

UPV/EHUko GOI MAILAKO ETA ERRENDIMENDU HANDIKO  
KIROLARIEN IDENTIFIKAZIO FITXA

GOI MAILAKO KIROLARIEN IDENTIFIKAZIO FITXA		(I. ERANSKINA)
Fakultatea/Eskola:		
Gradua:		
Ikaslea:		Argazkia
Jaiotze data eta lekua:		
NAN:		
Etxeko telefonoa	UPV/EHUko helbide elektronikoa:	
Telefono mugikorra:	Ikaslearen helbide elektronikoa::	
Helbide finkoa:		
Helbidea ikasturtean zehar:		
Eginiko Batxilergoa edo LH:		
Beste ikasketa batzuk:		
Matrikulatutako maila:	Hizkuntza:	
Kirol modalitatea:		
Kluba:		
Saillkapena, goi mailako kirolari gisa (EBO/EHAAren arabera)		
Entrenatzeko lekua ikasturtean zehar:		

ENTRENAMENDUEN ASTEKO ORDUTEGIA (egunak eta orduak)
-
-
ENTRENAMENDUEK ERAGINDAKO ERAGOZPEN AKADEMIKOAK
-
-
LEHIAKETAK ERAGINDAKO ERAGOZPEN AKADEMIKOAK
-
-
IKASLEAREN PREMIAK
-
-
PREMIA AKADEMIKOAK
-
-
KIROLAREN ALORREKO PREMIAK
-
-
BESTELAKO PREMIAK
-
-



## II. ERANSKINA

### UPV/EHUko GOI MAILAKO KIROLARIEN TUTORETZA PLANEAN PARTE HARTU NAHI DUEN IKASLEAREN KONPROMISO FITXA

IKASLEAREN DATUAK:

Izen-abizenak: .....  
NAN zk: .....  
Ikastegia: .....  
Campusa: .....

Nik, aipatutako datuak ditudan ikasleak, UPV/EHUko goi mailako eta errendimendu handiko unibertsitate kirolarientzako I. Tutoretza Planean parte hartzea eskatzen dut, eta neure egiten dut ondoren adierazitako erantzukizunak betetzeko konpromisoa:

1. Parte hartuko dut ikastegiak esleitutako tutorearekin adostutako tutoretza saioetan.
2. Kirol egutegia aurkeztuko diot ikastegiko tutoreari, entrenamenduen, kontzentrazioen, lehiaketan eta abarren ordutegiak zehaztuta bertan. Ezin badut lehen aipatutako egutegi zehatza aurkeztu, nire aurreikuspenekin ahalik eta neurririk handiengan bat datorren behin-behineko kronograma egingo dut. Ez zait justifikaziotzat onartuko eskolen, azterketen edo nahitaezko praktiken egunak baino gutxienez hilabete lehenago egiten ez dudana abisurik.
3. Irakasgaietako irakasleekin harremanetan jarriko naiz, eskatu ditzakedan laguntza neurriak adosteko.
4. Ezinezkoa dudanean eskola saioetara joatea entrenamenduak, kontzentrazioak eta/edo lehiaketak izateagatik, agirien bidez justifikatuko dut, bai eta azterketak, nahitaezko praktikak eta abar aurreratu edo atzeratu behar dizkidatenean ere arrazoi berberengatik.

Ikaslea tutoretza planetik kanpo geratuko da aipatutako erantzukizunak betetzen ez baditu.

....., .....(e)ko .....(a)ren .....a                      Iz.: .....